

Sinboloen joko anizkoitza euskal mitologian

(The multiple role of symbols in Basque mythology)

Arana, Anuntzi
Eusko Ikaskuntza
Fac. Pluridisciplinaire
29-31, cours du Comte de Cabarrus
F-64100 Baiona

BIBLID [1137-439X (1999), 18; 161-174]

Sinboloen balioa ez da intrintsekoa eta unibertsala, testuinguruak baldintzatua baizik; testuinguru bakarrean ere sinbolo beraren esanahia aldakorra izan daiteke, euskal kondaira mitiko batzuetan. Besteetan, zentzu bera duten sinboloak elkarren ondoan daude, elkar indartuz erredundantziari esker. Edo, alderantziz, aurkako zentzua dutenek (intimistak eta agresiboak, adibidez), hurbil azaltzen direnean, beren kontrastea murrizten dute; non ez diren elkarren osagarri gisa agertzen, izaki mitiko batengan bilduak, haren bikoiztasuna adieraziz. Bikoiztasuna halaber sinboloen efikaziaz dagokionez, egitura formalak eduki semantikoa eragiten baitu, biak banaezinak baitira, azterketa egiteko bereizten baditugu ere.

Giltz-Hitzak: Sinboloak. Mitologia. Sinboloen testuingurua. Sinboloen balio aldakorra. Egitura Edukin semantikoa. Bikoiztasuna. Irudien aniztasuna.

El valor del símbolo no es intrínseco y universal sino condicionada por el contexto: incluso en un único contexto la significación de un mismo símbolo puede ser cambiante, en determinadas leyendas míticas vascas. En otras ocasiones, símbolos de igual significado aparecen juntos, resultando reforzados merced a la redundancia. O por el contrario, cuando aquellos que tienen un significado encontrado (intimistas y agresivos, por ejemplo) aparecen cerca unos de otros, su contraste queda subrayado; cuando no aparecen como complementarios, reunidos en un mismo ser mítico, expresando su duplicidad. También existe duplicidad en lo referente a la eficacia de los símbolos, ya que la estructura formal induce el contenido semántico, puesto que los dos son inseparables, aunque aquí los diferenciamos para llevar a cabo el estudio.

Palabras Clave: Símbolos. Mitología. Contexto de los símbolos. Valor cambiante de los símbolos. Estructura. Contenido semántico. Duplicidad. Diversidad de las imágenes.

La valeur du symbole n'est pas intrinsèque et universelle. Elle est conditionnée par le contexte: même dans un seul contexte la signification d'un même symbole peut changer dans des légendes mythiques basques déterminées. Dans d'autres occasions, des symboles de même signification apparaissent ensemble, se renforçant l'un l'autre. Ou bien, au contraire, lorsqu'ils n'apparaissent pas comme complémentaires, réunis en une même entité mythique, exprimant leur duplicité, ceux qui ont une signification opposée (intimistes et agressifs, par exemple) apparaissent proches les uns des autres, leur contraste s'en trouvant renforcé. Il existe également une duplicité en ce qui concerne l'efficacité des symboles, puisque la structure formelle conduit au contenu sémantique, tous deux étant inséparables, même si nous les différencions ici pour une meilleure étude.

Mots Clés: Symboles. Mythologie. Contexte des symboles. Valeur changeante des symboles. Structure. Contenu sémantique. Duplicité. Diversité des images.

SINBOLOA

Lévi-Strauss-ek hainbatetan azpimarratu du sinboloen balioa ez dela intrintsekoa, ez unibertsala, testuinguruak baldintzatua baizik:

La méthode que nous suivons exclut, pour le moment, que nous attribuons aux fonctions mythiques des significations absolues. (...) Ce procédé, trop fréquent en mythographie, conduit à peu près inévitablement au jungisme. (...) Les symboles n'ont pas une signification intrinsèque et invariable, ils ne sont pas autonomes vis-à-vis du contexte. Leur signification est d'abord *de position* (Lévi-Strauss, 1964: 64).

Freud oscille -et n'arrive pas à choisir en fait- entre une conception réaliste et une conception relativiste du symbole. (...) (Mais) il reconnaît donc que le symbole tire sa signification du contexte, de son rapport à d'autres symboles qui ne prennent eux-mêmes un sens que relativement à lui (Lévi-Strauss, 1985: 247).

Hainbesteraino baldintzatzen du testuinguruak sinboloaren esanahia, honen balioa kontrajarria ere izan baitaiteke kondaira bakar batean.

Ezin da halere ukatu sinbolo batzuek kultura zehatz batean zentzu finko oso azkarra dutela: azeriak, adibidez, maltzurkeria adierazten du gure artean, eta nekez har lezake beste edukiren bat. Halaber, arma zorrotzek ezinbesteko esanahi faliko eta agresiboa daukate; horrekin batera balio positiboa izaten dute, salbatzaileak direlako askotan, etsai gaitzen kontra erabiliak; baina ezpatak ere bi aho ditu eta ustegabeko ondorio aldrebesak ekar ditzake.

Sinbolo babesgarri eta intimistak agresiboen alderantzizkoak dira; ontzi edo arraultzaren egitura dute eta printzipio bizigarria gordetzen dute beren azalaren barrenean. Hots, horiek ere galtzaile izaten dira etsaiek erabiliz geroz, haien gaitakerien estalpe-zulo direnean.

Zentzu oposatua duten bi sinbolo mota horiek aurrez aurre aurkitzen ditugu batzuetan, kontrasteari esker beren aurkaritza garbikiago agertarazten. Besteetan, aldiz, sinbolo desberdinak baina isomorfoak, elkarrekin azaltzen dira beren antzeko zentzua azkartuz eta azpimarratuz: arma zorrotzak, suan gorituak direnean, zaurigarriagoak eta eragingarriagoak dira. Urarekin zerikusia duten irudiak ere batera ibili ohi dira, hala nola ilea errekekako laminen atri-butu gisa.

Eta joku guztiak zilegi baitira, gerta liteke, baita askotan gertatzen ere, balio kontrario duten sinboloak biltzea pertsonaia bakar batengan, haren bikoiztasunaren seinale, hala nola Antibotoko Anderearen itxurak eta funtzioak, lurpekotasunaren eta airekotasunaren adierazleak.

Bikoiztasun beraren alderdi ohargarria aurkitzen dugu sinboloen efikazia aldakorrean. Sinbolo bakar batek eragin kontrajarriak izan ditzake, eta esanahia ongi finkatua dutenetan ere ez da sobera fido behar, printzipio salbatzaileak ondorio okerra ekartzen ahal baitu: oilarra, esate baterako, ontsalaz laguntzailea eguneko argiari lotua delako, engainatzailea izan daiteke. Erlatibismoaren marka da nire ustez bikoiztasun hori, herri mitologian aurkitzen den ezaugarri konstantea.

1. BURDINAZKO ARMAK ETA SUA

Oraingo euskal mitologia tradizionalen gutitan agertzen da ezpata, irudimenarentzat arma antonomasikoa dena. Baina usu ikusiko ditugu eginkizun bera betetzen duten tresnak, nahiz eta ez diren arma izateko eginak, hala nola burduntzia eta palankak. Euskal Herrian oso zabaldua den *Lamina zauritua* tipoko kondairan aurkituko dugu burduntzia (ikus Arana, 1996: 205-214).

Emakume batzuek -edo bat- gizonak oheratuta, gaubeilaz egoten ziren supazterrean, iruten edo trikotatzen; bide batez beren txirimartxoak ere jaten zuten ixilean, txitxiburruntzi goxoa, hau da, urdaia burruntzian errea. Halako batean, lamina tximiniatik behera jausi eta urdaia eskatu; pakeagatik eman zioten. Biharamunean berriz eta gauero berdin, laminak dena eraman. Aspertu ziren eta gizonari salatu. Harek, uxatuko zuela, emazte jantzita jarriko zela eta «ikusiko du horrek nor nazan ni». Lamina etorri eta aldaketa somatu zuen, irulea ez zela bezperakoa bezain trebea:

- Atzo pirpirin-pirpirin eta gaur pordoska-pordoska.
- Atzo lihoa nuen eta gaur iztupa - erantzun gizonak.
- Atzotik hona bizarra luzatu janta, zer dun izena?
- Nik neure buru
- Neure buru, eman txitxiburruntzi.

Gizonak burduntzia ongi berotu eta ahotik (edo begitik) sartu zion. Lamina tximiniatik joan zen oihuka eta lagunak etorri:

- Nork egin daun?
- Neure Buruk.
- Heure Buruk egin badaun aguanta egine!

Eta jaramonik egin barik bertan utzi zuten.

Tresna luze zorrotzak seguraski berez eta unibertsalki agresiboak eta falikoak dira. Eta gizonak dituzte baliatzen gehienetan, bizarraren aipamenak azpimarratzen duen legez; beste kondaira tipo batean ere, zapatarri batek akelarreko deabruari ipurdian eztenaz jo dionean, harek dio: «Hemen baten batek bizarrak latzak dituz!» (Arana, 1997). Izaki mitikoak hiltzeko edo uxatzeko erabiltzen ohi dira tresna horiek, etsaien kontrako salbagailu gisa; baina ez da ahantzi behar kontuak atera orduan ez direla bertsio guztiak ados, batzuetan lamina zauritu izanak etxearen txirotzea eta errekaratzea ekartzen baitu (Webster, 1993: 47).

Agresiboa da suaren sinbologia, arma zorrotzari lotua denean. Kondaira honetan, ordea, ez da beti horrela. Lamina ez da erretzen tximiniatik behera jausten delarik, eta bai gizonak janari edo burduntzi beroaz eraso egiten diolarik: suak ez dio larrua eta kanpo aldea mintzen eta bai aho barnea. Nago bi su horiek, bera izanik, desberdinak direla, eta hor datzala bitxi-keriaren giltza. Supazterreko sua, jakiak egosten eta gozatten dituena, ez da agresiboa komunzki, etxe barnekoa eta intimista baizik, Vestalek edo etxekandereak zaintzen dutena, iru-dimenaren gaueko erregimenak balioztatzen duen sinbolo femininoa. Baina su «eme» hori, gizonaren eskuetara pasatu eta arma falikoa goritzen duenean, egosteko orde erretzeko erabilida denean, zaurigailu bihurtzen da, eta testuinguru horretan doakion funtzio zaurigarria betetzen du ezin hobeto: lamina, lurpeko dibinitate femininoa, ohiltzen du, hiltzen ere batzuetan.

Arma zorrotzen sinbologia oso finkatua da; suarena, aldiz, aldakorra da, hainbestearino non aurkako esanahia duten bi su, aldi berean eta bakar batean bildurik aurkitu ahal izan baititugu.

2. AURKAKO SINBOLOAK AURREZ AURRE: BURDINAREN KASUA

Antzekoa da burdinaren bikoiztasuna. Hainbat kulturatan lurpeko izaki mitikoen antidotoztat daukate metal hori (Frazer, 1981: 617-619), eta hartaz egin objektuak kuttun gisa erabili izan dira: goldearen burdinazko hortzak, iltzeak... Baliteke burdinaren printzipio eragilea arma izatetik etortzea, gerlan duen balioa bikainagatik. Dena dela, arma ez denean ere «parte-txarrek»-en kontra erabili ohi da. Gurean, burdin zatitxo edo txanpona bat ezartzen zen txitan dauden arraultzetan, ihurtzuritik babesteko (Azkue, 1959: 96); errementariak izaten dira basa-

jaunen eta jentilen garaileak, kurriketaz sudurra kentzen dietenak (Garmendia, 1994: 43); Orozkon, burdinazko palankei esker nagusitu zitzaizkion jendeak jentilei.

Aldi berean, burdin teknika izaki mitikoek izan dutela lehenik esaten dute mitoek. Kalda nola atera (burdina nola lotu) deabruari edo basajaunari atera zion maltzurkeriaz San Martinek. Hona Etxebarria Ayestak Orozkon bildu duen kondaira baten eskema (ikus halaber Barandiaran, 1960: 152 eta 1962: 102):

Orozko Uxuluxeko olean jentilak egon zireala burdina egiten. Eta gero kalda ateratan eudien (zuten) eta San Martinek ezin atera.

San Martin joan zan jentilengana eta kantatu:

- San Martinek kalda atera jok (dik), San Martinek kalda atera jok!

- Area bota ez baleutsa ez joan aterako

Eta orain edozein erremintarik badaki kalda zelan atera. (Etxebarria Ayesta, 1991: 154)

Orozkoko jentilek ere bazekieten burdinaren teknika, burdinazko atea baitzeuzkaten beren egoitzetan:

Jentilek Jentil Zulon bizi ziren, edota horren gainean den Untzuetapikuko gazteluan (han badira erdiaroko gotorlekuaren hondamenak). Neskak bahitzen zituzten eta Orozko osoa zeukaten ikeran. Behin, Olabarrilandikoko alaba Axpuru aldera joan zelarik ardietara, jentilek hartu eta eroan Jentil Zulora edo gaztelura. Burdinazko ateetaz itxita zeukaten barnean. Nebak atetaraino hurbildu eta harekin hitz egin ahal zuten: arrebak esan zien halako orduan lo egongo zirela jentilak eta orduan etortzeko. Mutilak hala egin zuten, palankakaz atea apurtu zituzten eta arreba atera. Batzuek diote bahitzaileak gazteluko harresiei kontra siestan zeudela, nebek, laiariek bezala egiten, horma bota zietenean gainera eta bertan hilik gelditu zirela. Beste batzuek, aldiz, ihesi joan zirela edo Jentil Zulon barru-barrura sartu. Hilda edo ihes eginda, geroztik ez da gehiago jentilik ikusten Orozkon.

Eta herriak bere salbatzaileak saritu gura izan zuen: Hierro baitzuten abizena, handik aurrera Hierro-Palankos deitu ziren, palankakaz egindako balentriaren oroitzapenez. Haien ondorengoez gertakariaren irudia daukate Gorigitxi bere etxean.

Beste batzuek diote arreba haurdun zela jentilengandik eta jaio zuen umeak aitaren deiturarik ez baitzuen, Hierro-Palankos ezarri ziotela. Horren arabera, jentilen askazia bizirik legoke Orozkon (Arana, 1996: 236-246).

Kondaira honetan burdina ate babesle zein palanka agresibo gisa erabilia da, eta une batean bi burdinak elkarren aurka borrokatzen ikusten ditugu; azkenean arma zorrotzak gailendu dira eta haitzuloko atea bota dituzte: sinbolo erasotzailea intimista baino azkarragoa gertatu da.

3. ARMA SINBOLIKO ZORROTZ TIKIAK

Erasotzeko, baina defentsarako ere pentsatuak baitira armak, bigarren funtzioan daukaten eraginkortasuna sinboloetara hedatu da, babesle bilakatzeko. Objektu zorrotz tikiak, errealtate enpirikoan kaltegabekoak direnean ere, ahal gerizatzaille handia ardiets dezakete sinbolo mailan, armen indarrez jantziak direlako edo. Horrela gertatzen zaio, neure ustez, elorri-arantzari.

Landare sendagarriak eta babesleak ugari dira Europako tradizioan, baina seguraski elorri zuria da haietarik ospetsuena, bariante guztien gainetik beti atxematen duguna. Sorginen kontra baliatzen zuten Tirol-en Walpurgis gauean (Frazer, 1983b: 517), eta Frantzian ere fama itzela du:

Où que l'on soit, le nombre d'essences protectrices contre «les mauvais esprits» et «le mauvais sort» est réduit à deux: l'aubépine et le noisetier. Et encore le noisetier semble utilisé dans le seul Nistos (Gratacos, 1995: 209).

Bereziki ortziaren kontra du bertutea:

En certaines contrées, comme en Haute Bretagne, on croit même que l'on peut en toute sécurité s'abriter sous ses branches pendant les orages. Elle possède ce privilège parce qu'elle a couronné le Sauveur à la Passion. En Gascogne, la prière contre le tonnerre débute par ces mots: «La Vierge Marie / S'est endormie / Sous un aubépin / Depuis le soir jusqu'au matin». (...) Aux environs de Dinan, quelques personnes disent que l'aubépine protège, parce qu'elle a ses racines en enfer, et que le diable qui produit le tonnerre, ne veut pas qu'il tombe sur un de ses arbres (Sébillot, 1968c: 381).

Zerutarra zein infernutarra, biziki azkarra da beti elorria, sakratua izateraino:

L'aubépine est l'objet de nombreuses observances. Dans la Sud-Est de France, il semble qu'on la regarde comme sacrée: offenser le buisson blanc quand on s'y pique porte malheur (Sébillot, 1968c: 428).

Euskal Herrian, Azkuek (1959: 166-174 eta 293-310) eta Garmendiak (1987) aipatzen duten elorria ihurtziariaren kontrako erremediotzat, eta espezie hori da gehien aurkitzen Donibaneko lore-sortan. Orozkon (Arana, 1996: 418, 433 eta 437), lizar eta urrtziarekin batera erabiltzen zuten gurutzeak egiteko, Donibane bezperan soroetan ezartzen baitziren hodeitik eta izurritetik babesteko.

Orozkon berean kontatzen dute nola, Olarteko elizaurrean abadea hodeiaren (ortziaren) konjurua egiten ari zela, ahuntz tzarrak hurbiltzen ziren arantzeko hesiraino, bereterra eroan guras, baina handik aurrera ezin zutela sartu, iragangaitza bailitzan elorria haientzat; azkenean orratza eta zapata bota zizkien apezak eta orduan atzera egin zuen hodeiak (Arana, 1996: 292).

Jakina da haizkorak, igitaiak eta tresna zorrotzak maiz baliatuak izan direla ortzitik begiratzeko, eta hala Perun nola Borneon, geziez eta ezpatez egiten zioten mehatzu ekaitzari, ohiltzeko asmoz (Frazer, 1981: 268 eta 838). Alpeetan, haiztoa botatzen zuten elausoa geldiarazteko (Abry, 1988). Sorginen kontrako kutunen barruan altzairuzko puntak badira usu. Elorri zuriaren indarra bere arantzetan datzala diote, Kristoren koroarekin lotuak direlako (Sébillot, 1968c: 417); seguraski funtsezko arrazoia zaharragoa dateke: arantzak arma miniatura sinbolikoak dira; eta zuritasuna ere zentzu berean doa, garbitasunaren aldean.

Armak izan dezakeen funtzio defendatzailea nabariagoa da elorrian, zuhaitza den neurrian babeslea ere delakoan, sinbolo intimisten itxura eta ezaugarria bereganatzen duelako: gerizpea eskaintzen dio ortzitik begiratu nahi duenari. Bi alde horiek - latza kanpoan, kokaune goxoa barnean - beste objektu-sinbolo batek adierazten du modu bikainaz, eta balio du hemen aipatzea nahiz ez den Euskal Herrikoa. Alpeetan eta Borgoinan (Sébillot, 1968b: 206) famatua da piztia miragarri bat, «Vouivre» deitua (vipera, suge gorri). Suzko suge hegaldaria da eta diamante ederra du begi gisa, haren bidez gidatzeko aireko bidaietan; iturrietan ere ibiltzen da egarria ase guraz eta, edaten duenean, bere diamantea ur bazterrean uzten du. Aostako gizon batek gupel bat egin zuen, kanpo aldera dena burdinazko puntaz josia, eta iturriaren ondoan kate batez estekatu ondoan, barruan sartu zen; herensugeak bere diamantea belar gainean utzi zuenean, besoa atera eta harripitxia hartu zion; piztia gupelari eraso zitzaion, baina bere amorruan burdin zorrotzez zauritu eta hil zen. Irudi indartsu honek iruntzitako errealitate ankerra izan du, zoritxarrez; barnealdean puntak zituen gupela erabili izan da erdi aroan juduei oinaze emateko: barruan sarrarazi eta menditik behera igortzen zuten biktima (Fabre-Vassas, 1994: 184); sinboloaren inbertsio bihurria igartzen da hor, lehengai babeslea zaurigarri bilakaturik.

4. SINBOLO AURKAKOEN SINTESIA

Funtzio bikuna duen gupelaren antzera, gure kondairetako pertsonaia mitiko anitzek aurkako sinboloak biltzen dituzte beren baitan, izaera bikoitzaren adierazle. Ugariak dira horrelako pertsonaiak eta ugariak ere bakoitzaren baitan aurkitzen diren aurkaritza motak. Anbotoko Anderea -edo Murukoa- hartuko dugu adibidetzat: Andere horrek, amak ihaurti madarikazioagatik edo senarrak egin afruntuagatik, airean ibili behar du beti, su eta gar. Mendiko harpe etan du egoitza, Anboton, Gorbeian, Aloñan, Murumendin, Txindokin... eta bere harpeko atarian edo inguruan ikusi dute artzainek, ilea orrazten ari den emakume eder gisa, baita sai edo bele itxuraz ere, Gorbeiaiko Supelegorren legez (Arana, 1996: 740-745). Zazpi urtetarik mendiz aldatzen denean zerua zeharkatzen du, dena garretan eta tximisten artean eta harrijasa itzelak eragiten, zenbaitetan.

Modu antzekoan eta batzuetan leku beretan ikusten da herensugea, zeruan su bola bat bezala. Lapurdikoa Larrun mendian egoten zen: urte bakoitz buru bana hazten zitzaion eta, zazpi zeuzkanean, sutan airatzen zen itsasora buruz, hartan sartzeko (Barandiaran, 1973b: 416). Aralarko herensugea bertako haitzuloetan bizi da eta airetik aldatzen da batetik bestera (Satrustegi, 1980: 121). Sugeek lotura hestua dute ekaitzarekin, Euskal Herrian beste leku askotan bezala: Barkoxen diote suge anitz agertzen dela erauntsia dakarrenean (Azkue, 1959: 161), eta Lapurdin narratzit betetzen direla ibaiak euri jasen ondorioz (Barandiaran, 1973b: 417).

Hala herensugeak nola Anbotoko Andereak meteorologia gobernatzen dute eta hura bezain anizkorrak dira, hezetasuna zein lehortea eragiten dituzte, ekaitzaren sua (ortzia) eta ura (euria) batuz. Zerukoak eta lurpekoak dira aldi berean, bata aireko hegaztiz itxuratua, bestea lurreko narratziaz, eta biak bi alderdi oposatuok osaturik. Irudi bikoitz bera aurkituko dugu Ipar Amerikako mitologia indigenoan, hartan ortzi-txoriak eta sugeak direlarik euriaren sinbolo eta egileak; Azteken enblemak -hatzaparretan sugea daukan arranoak- sintetizatu du aurkako batasun hori.

Anderearen jatorria eta bizitza edasten dituzten kondairetan errekkurrentea da oposatuaren batasunaren euztura, baita harekin zerikusia duen erreflexibitatea; eta ez da kasu arraro bat, orokorki esan daiteke bikoitzasuna izaki mitikoen ezaugarria dela. Familiarretan aurkituko ditugu berriz airekotasuna eta lurpekotasuna; eta beste hainbat aurkaritza laminengan: uretik suetarako eta basotik etxeetarako harat-honata ikusten ditugu etengabe haien kondairetan.

5. SINBOLO ERREDUNDANTEAK ELKAR INDARTZEN

Bi sinbolo isomorfo batuz gero haien esanahia nola azkartzen den ikusi dugu, suak burdinazko armaren ahal zaurigarria nola handitzen duen. Modu berdinean, sinbolo intimistek eta sintetikoek elkar indartzen dute hurbil direnean. Hiru bikoteraren adibideak aipatuko ditut: loa/lurpea, ontzi borobila/oihala, ilea/ura.

5.1. Jentil lotiak eta lurpeko haziak

Berriz begiratu behar diogu arestian aipatu *Jentil bahitzaile*-en kondairari, zehazkiago hartan diren bi elementu ohargarri. Nebak palankakaz eraso zitzaientean, lo ei zeuden jentilak, eta horri esker atera ahal izan zuten arreba bahitua, baita etsaiak hil ere bertsio zenbaitetan: gazteluko hormaren itzalpean ei zeuden lokuluxka bahitzaileak, eta mutilek gainean bota zieten harresia, palankak laia gisa erabiliz.

Laborarien jestua eginez, jentilen gorputzak lurperatu zituzten nebek, ildoaren barnean hazia estaltzen den legez. Ezinezkoa da erkaketa ekiditea (Eliade, 1975: 295 eta 304), denek entzun baitugu Ebangelioak esana, lur barnean gal-hazia «hiltzen» ez bada, ez duela gero fruiturik emanen:

Amen, amen dico vobis, nisi grano frumenti cadens in terram, mortuum fuerit, ipsum solum manet: si autem mortuum fuerit, multum fructum affert (Joanes, XII, 24).

Horrelako irudian omen zetzan Eleusiko misterioen mezu itsaropentsuaren mamia. Jentilak ere ez ote dira aleak bezala ernatuko? Lo zeuden hil zituztenean, eta badakigu lo dagoena noizbait atzarriko dela, baita hypnos eta thanatos haurrideak direla ere. Berriro esnatzeko zain ez ote dautzate harrien azpian, printzesa lotiaren antzera? Ateak puskatu zizkietenean beren haitzuloan barnerago ihes egin zutela diote bertsio batzuek. Badirudi mitoak, jentil zapaltzaileen heriotza aldarrikatu arren, ez dituela betiko suntsitu gura; eta galdetzekoa ea sinboloak ez duen isladatzen -edota eragiten- jendeek eta jendarteek beren askatasuna lortzeko dauzkaten arazoak. Dena den, dudagabekoa da herioaren ondoan azaltzen diren sinbolo intimistak -lurpea eta loa- herioaren eufemismo direla.

5.2. Intxaur kiskuaren barneko oihala

Beste bi sinbolo intimista ikusiko ditugu funtzio bera betetzen ondoko kondaira honetan, Orozkon bilduaren laburpena:

Urigoitiko mutil artzain batek mendian ezagutu euan (zuen) andregai izugarri ederra, eta ezkontzekotan zegozan. Ederregia ez ote zan eta, amak abadearengana jo euan aholku bila: harek neskaren oinei ondo begiratzeko gomendatu eutsen (zion), lamina bazan, hatzazalak barik erpeak eukiko eudiezala (zituela) oiloek legez. Hala egin euan mutilak bai eta erpeak ikusi bere. Etxera joan eta tristuraz hil zan.

Hilbegiran egozanean neska galanta sartu zan etxera, intxaur batetik sobrekama ederra atera eta hartaz estali euan bere amorantearen gorpua. Gustatu jakien sobrekama bertan egozan emakumeei eta beren artean egin eudien (zuten): «Ez jona (din) eroango, ez jona eroango»; eta josi egin eudien oheari -garai hartan gorpuak ohean egoten ziren-. Baina atautan sartzeko orduan, josirik egon zein ez egon, sobrekama hartu laminak, intxaurrean sartu eta joan zen (Arana, 1996: 226).

Zeberioko bertsioan, Etxebarria Ayestak bildua (1991: 353), gorpua elizaurrean zegoenean laminak bere kapa bota nahi izan zion, baina jendeak konturatu ziren eta arin sartu zuten elizara; lamina irrintzi batean geratu zen: kapa boteaz hilaren arima eroan gura zuen. Otxandianoko bertsioan (Azkue, 1966: 53), lamina atzetik jarraitu zitzaion senargaiari harremana hautsi zuenean, eta ondotik hil zen mutila.

Euskal Herrian Bizkaiko bertsioak bakarrik aurkitu ditut, baina mitoaren etorria oso zaharra da. Apuleioren *Metamorfosi*-etako «Psyche eta Eros»-en istoria da, Aarne & Thompson bildumako tipo 425.

Hilaren estaltzea errito pizgarria izan daiteke, matrizan berriz sartzeko eta arrasortzeko itxaropenaren sinboloa:

Les mythes et les rites qui se réfèrent à la mort voient Revenir avec insistance l'idée de revenir à la vie, de renaître. Des termes comme envelopper ou cacher expriment l'anéantissement à travers des métaphores utérines. (...) Etre enveloppé dans l'amnios, enroulés dans un manteau, cousus dans une peau, (...) nous retrouvons une expérience primaire de caractère corporel (Ginzburg, 1992: 265).

Hots, jestu biziemaile hori bi bider adierazia da gure kondairan, estalgia bera intxaurra-
ren barnean biltzen baita: gorpua, matriuska batean bezala, lehen oihalean eta gero kuskuan
kukutua dago, errekkurrentziaren bidez eragin handiagoa lortzeko gisan.

Bestalde, oinen anomalia - oilo zangoak - eta orohar ibileraren edozein arazo, beste
munduarekiko harremanen adierazlea da: oreka ezegonkorrean ibiltzen dira herrenak, mundu
honen eta bestearen arteko joan-jinak egiten, eta bitartekoak dira, zango bat hemen eta bes-
tea han dutela.

Mitoak, kezka existentzialak gogoetatzean, lasaigarriak eskaintzen ditu, herioaren ikara
nolabait gozaten duten berpiztearen sinboloak erakusten: ontziaren eta bilgailuaren intimis-
moa ezartzen du beste munduarekin harremanak dituen izaki baten eskuetan; gorpuak lurpe-
ko matrizaran kokatzen ditu; Thanatos eta Eros, Thanatos eta Hypnos uztartuak direla iradoki-
tzen du, bigarren terminoak lehenaren eufemizazio izan daitezzen.

6. SUA, URA ETA ILEA: LAMINEN AURKARITZAK ETA ERREDUNDANTZIAK

Erredundantziatz nahastean, sinboloen oposizioa ere atxematzen da izaera eta itxura bi-
koitzak dituzten laminengan; zaharrak, itsusiak eta supazter zaleak dira tximiniatik datozenak
(*Lamina zauritua*); azken kondairakoa, aldiz, eder-ederra. Orozkoko gizon batek argitu zidan
bitxikeria hori: laminak basoan eta beren artean daudenean biziki neska politak dira; baina
jende batek sorozten dituela konturatzuz geroz, berehala itsusi-itsusiak bilakatzen dira.

Etxe barnean pentsatuak direnean, tximiniari lotuak dira laminak, hainbat anekdotak
egiaztatzen duen bezala. Orozkoar berak kontatu zidan haurrean beldur zirela tximiniatik ke-
darra erori edo zarata entzuten zutenean, laminak zirelakoan. Beste behin, lagunartean geun-
dela, Donazaharreko batek harrabots zerbait entzun zuen supazter aldean, eta handik lami-
nak ote zebiltzan egin zuen barrezka.

Etxeke suak erakarri arren, basoko ur bazterra izaten da komunzki laminen egon lekua:
ilea orrazten edo beren arropa ederrak garbitzen egoten dira errekan. Oihaleriak ehuntza ere
badela esan nahi du; alabaina, laminek beren adats luzea zaintzen dute lihoa edo artilea
orrazten den letxe; funtsean, txarrantxari ere orrazia deitzen zaio.

Laminak, latsariak izanki esplizitoki, iruleak eta ehuleak dira implizitoki, oihalen metoni-
miari eta orraztearen metaforari esker. Gure tradizioak femininotzat dauzkan eginkizun horie-
tan igartzen ditugu berriz sinboloaren adierazpen existentzialak, denboraren ihesa eta herioa:

Les instruments et les produits du tissage et du filage sont universellement symboliques du
devenir. Il y a d'ailleurs constante contamination entre le thème de la fileuse et celui de la
tisseuse, ce dernier se répercutant d'autre part dans les symboles du vêtement, du voile.
(...) Nos fées «filandières» autant que «lavandières» vont souvent par trois, ou au moins
par deux -l'une «bonne» fée, l'autre néfaste «carabosse»- révélant par cette duplicité leur
caractère lunaire (Durand, 1969: 369).

Il y a des gens qui croient que ce serait un grand péché de filer dans la chambre d'un mala-
de qui aurait reçu l'Extrême Onction, parce qu'il mourrait si l'on cessait de filer ou que le fil
vînt à se rompre. (...) La manipulation du fil a symboliquement quelque chose à voir avec la
vie et la mort (cfr. Parques et Moires). (...) Le fil peut constituer une métaphore du temps, et
particulièrement du temps humain, parce qu'il est un objet discret (au sens mathématique et
linguistique du terme) par opposition à la masse indifférenciée et confuse de la laine ou des
fibres broyées d'où il est issu (Belmont, 1984).

Eta non da ura sinbologia honetan? Hasteko, laminen eremu eta ihardungune den errekan berean: uraren ixuri heraklitarrak ehuntzaren eta harilkatzearen zentzu bera du, denboraren ihesa eta herioa. Gero, ileak berak eramaten gaitu urera, hizkera poetikoak batzen dituela bataren kizkur mugikorak eta bestearen uhainak; irudi horretan sortzen ei da Bachelard-ek «Ofeliaren konplexua» deitzen duena:

Cette vision d'une chevelure flottante, nous verrons qu'elle anime à elle seule tout un symbole de la psychologie des eaux, qu'elle explique presque, à elle seule, tout le complexe d'Ophélie (Bachelard, 1942: 114).

Latsa, lamina eta herioa batu ditu Shakespeare-k neskaren itotzea edatsi duenean: urera erori eta azalean egon zen lipar batez, «her clothes spread wide, and mermaid-like awhile they bore her up»; baina luza gabe ondoratu zen: «Too much of water hast thou, poor Ophelia». Ur hilgarriaren tema dugu hor:

L'imagination du malheur et de la mort trouve dans la matière de l'eau une image matérielle particulièrement puissante et naturelle. Ainsi, pour certaines âmes, l'eau tient vraiment la mort dans sa substance (Bachelard, 1942: 122).

Gure kulturaren emakumetasunaren sinboloak dira ura eta ilea, eta hiruak hain dira hurbil irudimenarentzat, elkartzen direnean laugarren elementu isomorfo bat ekoizten baitute: sugea. Azkuek (1959: 80 eta 439) bildu hainbat sinesteren arabera, ile bat urean paratuz gero suge bihurtzen da (Bera, Olaeta, Barkoxe, Gipuzkoa); Zeanurin emakumearena izan behar du ileak. Elorrioren eta Diman, erreka sugeak zaldien uleetatik sortuak dira. Erronkarin, suge-bilo du izena uretan ibiltzen den har batek eta bilotik sorten dela erratea da. Horma zuloetan bere suge egiten dira andreen uleak edota luze eguzkitan egoten badira.

Jean Iparragarre (Ezpeletako semea da) behin behorren buztan biloak ebaki eta ur-erreka batean harri baten azpian utzi zituen eta egun batzuen buruan sugeño itzuliak ikusi zituen. Honelaxe erran zautan. Norbaitek behor-biloa nahiz jendearena irents baleza, barrenean suge bat sortuko litzateke (Azkue, 1959: 439).

Uraren eta ilearen loturaren sinestea zein zabaldua den erakusten du Eliade-k:

Le lien entre les serpents et les sources et cours d'eau s'est même conservé dans les croyances populaires européennes. Dans l'iconographie des cultures amérindiennes le binôme serpent-eau est extrêmement fréquent. (...) D'après certaines superstitions d'Europe centrale, si l'on enterre des cheveux arrachés à une femme qui se trouve sous l'influence de la lune (c'est à dire, à l'époque des règles) ils se transforment en serpents (Eliade, 1975: 150).

Sébillot-ek sineste bera aurkitu du Côtes-du-Nord departamentuan, Auverniaren, Finisterren eta Poitou-n:

En Poitou, les cheveux mis dans l'eau, ou même abandonnés à l'air libre, se métamorphosent en reptiles; une vieille sorcière de ce pays avait infecté de serpents le champ d'un voisin en venant s'y peigner chaque jour (Sébillot, 1968c: 257).

Fenomenoa alderantzizko norabidean ere jazo daiteke, Frazer-ek dioenez (1981: 639-640), eta ile-suge horiek ura eragiten ahal dute, ur kaltegarria, jakina: sorginek erabiltzen omen zituzten, ekaitza eta babazuza ekartzeko, Tirolen eta Eskozian. Euriegilea den Anbotoko Anderea ere, hain zuzen, orrazten azaltzen zaigu.

Urak, ileak, orraziak, oihalak irudikatzen dituzten eginkizunak, beraz, garrantzi sozioekonomikoa izateaz gain, sinbologia existentzialaz zamatua da. Ulertzekoa da adierazpen hain bizia duten gauzen lapurketak ondorio larriak ekartzea. Horixe kontatzen dute *Orrazia lapurtu* tipiko istoriek. Hona Orozkon bildu hainbat bertsioren bilduma:

Urigoitin, Atxulaurreko lastretan egoten ei zirean laminak, eguzkitan orraztuten. Hara joan zan Arandi etxeko bat ahuntzen bila, eta laminek ikusi eudienean (zutenean) ariniketan sartu zirean zuloan, orrazia eta esku-pañoa bertan ahantzita utzirik. Hartu eudiezan Arandik eta etxera eroan. Gero, gauez laminak etorten jakozan etxera esaten:

«Arandi, Arandi,

«Entrega egidazak eskupaño eta orrazi

«Eztabere nik galduko joat hire askazi».

Azkenean, beldurtuta, laminek gauzak atzera eroatera joan zan, eta bakea izan euan. Baina batzuek diñoe, laminek maledizinoa bota eutsiela etxe horri: «Ez zala hartan zororik eta eririk faltako». Hutsa eta utzia dago orain etxea (Arana 1996: 215-225).

7. SINBOLOEN ERAGINKORTASUNA

Sinboloen esanahia bezala, haien indarraren eragina ere aldakorra izan daiteke, usteka-bekoa eta engainagarria batzuetan.

Ikus dezagun oilarraren adibidea. Alde anitzetik datorkio hegazti horri bertutea, baina seguraski argia eta eguna dira garrantzitsuenak. Gaua/eguna edo iluna/argia bikoteen aurrean badirudi joera unibertsala dela lehena gutiestea eta bigarrena balioztatzea, eta mito askotan egunaren argiak edo eguzkiaren izpiek uxatzen dituzte gaueko izaki beldurgarriak. Argiaren inguruan biltzen diren irudi baikorren konstelazioan kokatzen da oilarra. Egunaren sinboloa da tradizio oso zaharrean, *Avesta*-n jadanik agertzen dena, eta goizargian jo ohi duelako («Chantecler» du izena XIII. mendeko *Roman de Renart*-en) haren kukurruetara erretiratzen dira gauez ibiltzen diren «parte-txarrekoak», deabruak eta beste. Horrela Bizkaian *Kastrejanako zubia* izenez ezagutua den kondairan:

Hargin batek zubia eraiki behar zuen, eta lanean hasi bai, baina egunez egiten zuen guztia gauez behera jausten zen. Aspertuta esan zuen: «Deabruak behintzat balegoz zubi hau egiteko, arima emango neuskie bukatua ikustearren». Deabrua agertu eta tratua onartu zuen: harginaren arimaren truke, eguna argitu barik zubia bukatuko zuen. Lanari ekin zioten deabruak, menditik sekulako harriak ekartzen, batez ere herren batek ehun tonelada bidaian, eta lana aurrera zihonan arin. Gizona larri, abadearengana aholku bila. Harek esan zion oilarrari kantarazi behar ziotela. Oilategira joan eta liburuak zabaldu eta itxi, «pla-pla-pla» txalo egin zuten, jo aitzin oilarrak ohi duen letxe. Eta kukurru egin oilarrak. Egunsentia zelakoan deabru guztiak ihesi joan ziren, zubia bukatzeko harri bat bakarrik falta zela. Harginak ez zuen arima galdu, baina zubia beti harri baten faltan dago eta inork ezin izan dio ezarri (Arana, 1996: 348-356).

Orozkoko Sofi Etxebarriak edatsirik bertasioak badu besteek ez duten zehaztasun eder-rra, hau da, oilarrak kantatzerakoan hegalei eragiten diela; hegaztia dela oroitarazten digu, zerutarra, eta xori «ona», argiaren aldekoa eta lurpekoen aurkakoa. Baina besterik ere bada bertasio bikain honetan, liburu eta hegalei zafalak parekatzea. Magiaren tresna hauta da liburu- indar handiaz hornitua, hitzaren bertuteari idatziarena gaineratzen diola. Nago liburuaren gainbalioa jasotzen duen oilar honek besteek baino eragin azkarragoa duela.

Ez dira, baina, denak berdin onak. Orozkoko andere berak esan zuen auzoko emakume bati gertatu zitzaion pasadizoa.

Domeketan Laudion merkatua eta, baserritar bat hara abiatu zen oilarrak jo eginda, etxean erlojurik euki ez eta goizaldea zelakoan. San Sebastian ermitara heltzean zaratak eta negar- rrak eta erremistadeak izan ziren itzelezkoak... Oilarrak ordubietan edo jo zuen eta parte-txa-

rreko guztiak oraindio kanpoan zirela urten zuen kanpora emakume gaixoak! Geroztik ez ei zuen inora urten gauetan (Arana, 1996: 128).

Kastrejanan, deabruak engainatu zituen oilarrak, egunsentia zela sinestaraziz. Orozkon aldiz, deabruak ez ei zioten sinetsi -edo ez entzun-, eta sinboloak, ohiko eraginaren orde, in-frentsuzkoa ekarri zuen: jendea engainatu eta parte-txarrekoengana eroan.

Herri mitologiaren mezua ez da inoiz manikeista izaten, gogohartzen du gauzak ez direla beti onak ala txarrak besterik gabe, baina bi alderdi izan ditzaketela, eta biak elkarrekin joan ohi direla. Kristau Elizaren sinboloek ere bikoiztasunaren printzipioari men egin behar diote eta, oso ahaltsuak izanagatik, ondorio txarrak ekar ditzakete batzuetan, noiz nola. Bi adibide emango ditut. Itsasondoko apeza Murumendiko Damaren zuloa joaten zen maiatzaren hiru-ruan, konjuru botatzera: Andere ekaitzegilea bere zuloan harrapatuz gero, handik urten barik geratu behar zuen, konjuruaren zerrailu magikoaz itxita, eta orduan ez zuen ekaitzik egiten. Baina kanpoan harrapatuz geroz, zerrailu berak galarazten zion bere egoitzara sartzen, eta kanpoan ibiltzen zen ortozka eta ihurtzurika, hasarretuta seguraski, babazuza botatzen eta uztak xehatzen (Barandiaran, 1960: 22).

Bigarren adibidea: lehengo ohituraz, habitua janzen zitzaaien hilei, ontsalaz zeruko bidea errazteko. Baina gerta liteke hila kondenatu izatea eta, orduan, infernuko oinazea areagotzen zion jantzi sakratuak. Kontatzen da hil horiek agertzen zitzaizkiela biziei galdezka otoi ken diezaieten arropa hori, beren minak doi bat gozatzeko. Salbazioa ardiesteko pentsatua eta egina zenak kondena gaiztoagoa eragin lezake (Arana, 1996: 557). Sakratua erabiltzen denean ez da beti kausitzen.

8. BAHEAREN ABERASTASUNA ETA FAMILIARRAK

Aitzineko Grezian Demeter eta Dionisosen atributua zen bahea eta narotasuna adierazten zuen (Frazer, 1983a: 27 eta 35). Gure sinboloetarik anizkorrenetakoa da, sailkatzeko zaila, hainbeste arlo ikutzen baitu eta hainbeste aldetatik. Salbatzailea da «parte-txarreko»ei ematen zaienean, haren zuloak kontatzen denbora pasa dezaten eguzkiak urten arte (hazi-aleak ere erabili ohi dira helburu berdinean).

Leku berezia merezi du baheak euskal mitologian. Orozkokoan behintzat pentsatzeko makina bikaina da, gehien bat familiarrei lotua. Mamarroak langoak dira izaki bihurri horiek eta bikoiztasunaren kokaune. Lurpekoak, Jentil Zulon harrapatzen dira Donibaneko gauan eta orratzontzian gordetzen; askatzen direnean, ordea, aire zabalean ibiltzen dira hegan. Beren jabeari lan izugarriak egiten dizkiote baina, azken orduan, ez dute hiltzen uzten. Kinka gaizto horretan zegoen familiardun batek, haietaz desjabetzeko, ahuntzari sartu zizkion arranean edo ipurdian; beste batzuetan alabari edo neskameari ematen zaizkio, edota baheari. Hartzailea -pertsonean, aberea edo tresna- berehala airatzen da eta emalea hiltzen ahal da.

Falikoki erabiliak eta falikoak dira familiarrak, orratzontzian gordetzen diren ber orratzak baitira. Haien elementu osagarria da bahea eta seguraski horregatik erakartzen ditu, oihalak -sare zulodunak- orratza erakartzen duen antzera; harenganako duten joera baliatuz erabiltzen da bahea familiarretaz desjabetzeko. Batzuetan, halere, zaila da gauza, *Axpuruko Abadearen neskamea*-ren kondairan, kasu (Arana, 1996: 308-323).

Orozko Axpuruko etzaldea mendi maldan dago, goian, eta beti ur eskas izan du. Han bizi zen abadeak familiarrak zeuzkan, orratzontzi batean gordeta. Maiatzaren 8 batean, Urduñako festak, neskamea balkoian zegoen hasperenka:

- Ai! Oraintxe nor egon litekeen Urduñako zezenetan!

- Joan gura duzu ala? -abadeak.

- Bai eta pozik joango nintzake.

Atera zituen orratzontzikoak eta laino baten gainean «zzzzz», Urduñako plazaraino. Zezenak ederto ikusi eta gero berriz atzera bide beretik.

Geroztik neskameak jakin zuen familiarren berri eta, mirakusia, abadea meza ematera joan zenean -Muruetan ei zuen eliza, erreka bestaldeko mazelan- orratzontzia bilatu, aurkitu eta zabaldu egin zuen. Barruko euliek urten eta lan eske hasi zitzaizkion. Egurretan ipini zituen eta, pagoak errotik erausita, laster egurrez estali zuten Axpuruko larraina. Eta berriz beharra gura zutela. Beheko errekatik ura ekartzeko esan zien neskameak, eta urrun eta aldapa handia izan arren, amen batean bete zituzten etxeko ontzi guztiak. Eta ostera bere inguruka eta hegaka, erleak legez pikeka: «Beharra, beharra, beharra!». «Topatuko deutsiet!» -egin zuen neskameak, eta bahean ura ekartzeko agindu.

Antzeko bertsio batzuetan hor bukatzen da istoria: agindua ezin zuten bete familiarrek eta pake eman zuten. Baina Orozkokoak maltzurragoak ote ziren: pekorotzaz tapatu zituzten bahearen zuloak, hartan ura ekarri eta uholdeak Axpurun!

Azkenean, meza emoten zegoen lekutik igarri zuen abadeak zeredozer gertatzen zela etxean. Berehala etorri eta euliak bere ontzira batu zituen. Eta hor bukatu ziren komediak.

Kondaira honetako bahea ez da bakarrik orratzari oposatzen zaion ehuna, bere sarean beste hainbat irudiren joko aberatsak bilbatuak ditu. Ogia (janari antonomasikoa) ekoizteko pentsatua den tresna, erlauntza egiteko bezala pekorotzaz (antijanari antonomasikoaz) tapatuz geroz, ura (edari antonomasikoa) edukitzeko gisan erabiltzen dute erle itxurako familiarrek. Osterantzean, tapatu barik ura ekartzeko erabiliko balute, tanto lodiak isuriko lirateke haren zuloetatik, hodei-euriaren antzekoak. Hodeia tantoz egina izanik eta bahea zuloz, bata bestearen negatiboa da, baina bien eginkizunak antzekoak eta oposatuak dira: bahetik eragiten den irina (janaria) hodeiak isurarazten duen uraren parekoa da (edaria). Horrez gain, familiarrak ekaitz-hodeietan ibiltzen dira eta ekaitzak bezala erauzten dituzte zuhaitzak.

Bahearekin nahitaezko loturarik ez badute ere, aipatzekoak dira Axpuruko kondairan erabiltzen diren paisaiaren elementuak: mendiaren eta erreka zolaren arteko oposizioa, goia eta behea.

Irudi guzti horiek paregabeki giltzatuak dira bahearen inguruan. Arlo askotako elementuak dira, naturari, lanari edo bizi-kezkei dagozkionak: heriotza, ogiaren ekoizpena, euria, uraren horniduraren, orografia, izpiritu bihurrien kontrola. Oposizio, parekotasun, simetriaren bidez elkarrekin josiak dira, eta manera anitz horiek ere jokia trinkotzen eta aberasten dute, jolas dibertigarri bihurtuz: oroitarazi behar da gogoaren jostagailu ere direla sinboloak, haien erabileraren funtzio bat, eta ez denmendrena, ludikoa dela.

• • •

Sinbolo motak mundua eta bizitza bezain anizkorrak dira, edozein errealtate edo espe-
rientziatik hartuak: naturatik (ura eta sua, elorria), geografiatik (mendia eta erreka, etxea eta basoa), bestiariotik (oilarra), anatomiatik (ilea, bizarra), fisiologiatik (loa eta herioa), sentimen-
tuetatik (amodioa), teknikatik (burdina, palankak, orrazia)... Irudi bakoitzaren birtualitateak ere
agortezinak dira, haren aldeak eta aldiak bezain ugariak, eta beti posible da gehi bat ekar-
tzea: ikusi dugu oilarraren ohiko kualitateei nola gehitzen ahal zaien liburuaren ezaugarria,

alegia deus ez, baten hegialak eta bestearen orriak erkatuz. Bestalde, sinbolo bakoitza zeinen ondoan dagoen, haren esanahia erredundantzia azkartua ateratzen da, edo kontrastez argitua. Horrela egitura formalak edukin semantikoa baldintzatzen du: ongi ikusten da bien elkar eragina eta banaezina, azterketa egiteko metodologiaz bereizten baditugu ere.

BIBLIOGRAFIA

AARNE, Antti & THOMPSON, Stith

1964 *The types of the Folktale*, Helsinki (1. arg. 1928).

ABRY, Ch. & JOISTEN. A. & BERLIOZ, J.

1988 «Les dialogues des esprit maléfiques dans la montagne», *La Haute Montagne*, Grenoble.

ARANA, Anuntxi

1996 *Orozko Haraneko kondaira mitikoak*, Doktoragoko tesia, Bordeaux III - EHU, 1998.

1997 «Emakumeak euskal mitologian», in *Emakumeak Euskal Herriko historian*, IPES-en Formazio kuadernoak, 24 zkia, Bilbo.

AZKUE, Resurreccion Maria

1959-71 *Euskalerriren Yakintza*, 4 tomo, Espasa Calpe, Madrid (lehen argit. 1935)

BACHELARD, Gaston

1942 *L'eau et les rêves. Essai sur l'imagination symbolique*, Librairie José Corti, Paris.

BARANDIARAN, Jose Migel

1960-1962 *El Mundo en la mente popula vasaca (lau volumen)* Añamendi, Donostia.

1973 *Eusko Folklore*, O.C. II. tomoa, GEV. Bilbao.

BELMONT, Nicole

1984 «Mythologie des métiers», *Ethnologie française*, 1984-1, 45 or.

DURAND, Gilbert

1969 *Les structures anthropologiques de l'imaginaire*, Bordas, Paris (1. arg. 1960).

ELIADE, Mircea,

1975 (1. arg. 1949) *Traité d'histoire des religions*, Payot, Paris.

ETXEBARRIA AYESTA, Juan Manuel

1991 *Zeberio Haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*, Ibaizabal argitaletxea, Zornotza.

FABRE-VASSAS, Claudine,

1994 *La bête singulière, Les juifs, les chrétiens et le cochon*, Gallimard, Paris.

FRAZER, James George

1981-84 *Le rameau d'or*, 4 tomo, Laffont, Paris (*The Golden Bough*, 1911-15).

GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan

1987 *Ritos del solsticio de verano*, Kriselu, Donostia

1994 *Euskal pentsamendu magikoa II*, Elkar, Donostia

GINZBURG, Carlo

1992 *Le sabbat des sorcières*, Gallimard, Paris (*Storia notturna, una decifrazione del sabba*, Einaudi, Turin 1989).

Arana, Anuntzi

GRATACOS, Isaure

1995 *Calendrier Pyrénéen Rites, coutumes et croyances dans la tradition orale en Comminges et Couserans*. Privat, Toulouse.

LEVI-STRAUSS, Claude

1964 *Le cru et le cuit*, Plon, Paris.

1985 *La potière jalouse*, Plon, Paris.

SATRUSTEGI, José María

1980 *Mitos y creencias*, Txertoa, Donostia.

SEBILLOT, Paul

1968 *Le folk-lore de France*, 4 tomo, Maisonneuve et Larose, Paris.

WEBSTER, Wendworth

1993 *Euskal ipuinak*, 2 tomo, Xipri Arbelbideren edizioa, Klasikoak, Donostia.